BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIAK, FADURAKO (GETXO, BIZKAIA) "BASQUE TEAM GOI-MAILAKO KIROLAREN EUSKAL ZENTROA" KIROL EKIPAMENDUAREKIN HORNITZEKO PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU LABURTUAREN BIDEZ, EUROPAR BATASUNAREN «BERRESKURATZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN FUNTSEKIN FINANTZATUTA – NextGeneration EU»

PLIEGOS DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO ABREVIADO EL SUMINISTRO DE EQUIPAMIENTO DEPORTIVO PARA EL "CENTRO VASCO DEL DEPORTE DE ALTO NIVEL BASQUE TEAM" DE FADURA (GETXO, BIZKAIA), FINANCIADO CON FONDOS DEL «PLAN DE RECUPERACIÓN, TRANSFORMACIÓN Y RESILIENCIA - FINANCIADO POR LA UNIÓN EUROPEA – NextGenerationEU»

1. Kontratuaren xedea

Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legearen printzipio gidarietan ezarritakoaren arabera, jarduera fisikoa eta kirola interes publikoko gizarte-jarduerak dira, eta pertsonen prestakuntzan eta garapen integralean, haien osasunean eta bizi-kalitatean eta ongizate indibidual eta sozialean laguntzen dute.

Printzipio gidari horiek berek (2. artikulua) aitortzen dute, halaber, botere publikoek, beren eskumenen esparruan, eskubide hori behar bezala erabiltzen dela bermatuko dutela, kirol-politika baten bidez. Politika hori, besteak beste, administrazio publikoen arteko eta administrazio publikoen eta kirol-federazioen eta/edo beste edozein kirol-erakunderen arteko lankidetza arduratsuan oinarrituko da. Lege horren 3. artikuluaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) erakunde komunei dagokie Autonomia Estatutuaren arabera EAEri dagozkion baina lurralde historikoetako foru-organoei, udalerriei edo gainerako toki-erakundeei esleitzen ez zaizkien eskumen guztiak baliatzea kirol-arloan.

Eskumen horiek baliatzeko, Eusko Jaurlaritzak hainbat kokapen ditu, eta horien artean dago Fadurako Makalen etorbideko 64. zenbakian

1. Objeto del contrato

Según lo establecido en los principios rectores de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco, la actividad física y el deporte constituyen actividades sociales de interés público que contribuyen a la formación y al desarrollo integral de las personas, al mantenimiento o la mejora de su salud y calidad de vida y al bienestar individual y social.

Estos mismos principios rectores (art.2) reconocen, asimismo, que los poderes públicos, en el ámbito de sus respectivas competencias, garantizarán el adecuado ejercicio del citado derecho mediante una política deportiva basada, entre otras, en la colaboración responsable en materia deportiva entre las distintas Administraciones públicas y entre estas y las federaciones deportivas y/o cualquier otra entidad deportiva. Mediante el artículo 3 de la referida Ley, se reconoce que corresponde a las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma de Euskadi (en adelante, CAE) ejercer en materia deportiva todas las competencias que, correspondiendo a la CAE en virtud del Estatuto de Autonomía, no se atribuyan a los órganos forales de los territorios históricos, a los municipios o a las demás entidades locales.

Para el ejercicio de las referidas competencias, el Gobierno Vasco dispone de varias ubicaciones, entre las que se encuentra el

dagoen eraikina (48993 Getxo, Bizkaia), "Basque Team Goi Mailako Kirolaren Euskal Zentroa" (aurrerantzean, BAT eraikina) izenekoa. Eraikin hori Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari atxikita dago, eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak kudeatzen du. Zentro horretan kokatzen dira Zuzendaritzaren zerbitzu hauek: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Eskola, Basque Team Goi Mailako Kirolaren Euskal Zentroko (aurrerantzean, BAT eraikina) zerbitzu biomediko-teknikoak, Dopinaren aurkako Euskal Agentzia eta Jarduera Fisikoaren Euskal Agentziaren Zerbitzua (389/2024 Dekretua, azaroaren 26koa, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, 9.2). Eraikinaren izena BAT da orain.

edificio situado en la Avenida de Los Chopos nº 64 de Fadura (48993 Getxo, Bizkaia) conocido como “Centro Vasco del Deporte de Alto Nivel Basque Team” (en adelante edificio BAT). Dicho edificio se encuentra adscrito al Departamento de Cultura y Política Lingüística, y lo gestiona la Dirección de Actividad Física y Deporte. Se ubican en ese centro los siguientes servicios de la Dirección: La Escuela Vasca de la Actividad Física y del Deporte, los servicios biomédico-técnicos del Centro Vasco del Deporte de Alto Nivel Basque Team (en adelante edificio BAT), la Agencia Vasca Antidopaje y el Servicio de la Agencia Vasca de Actividad Física (Decreto 389/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística, art. 9.2). Al edificio se le conoce ahora con el nombre de edificio BAT.

Kontratu honen xedea da Fadurako (Getxo, Bizkaia) Basque Team Goi Mailako Kirolaren Euskal Zentroa kirol ekipamenduarekin hornitzea da.

El objeto del presente contrato es el suministro de equipamiento deportivo para “Centro Vasco del Deporte de Alto Nivel Basque Team” de Fadura (Getxo, Bizkaia).

Konkretuki, **GPS teknologian eta azelerometrian oinarritutako Kirolariaren Monitorizazio Aurreratuko Sistemak** kirolarien jarduera denbora errealean kontrolatzea ahalbidetuko du, abiadurari, joan-etorriei, lan-kargari eta erantzun fisiologikoari buruzko datu zehatzak emanez. Sistema horrek honako hauek izango ditu: azelerometroa duten 24 GPS igorle, maiztasun kardiako integratua duten 48 txaleko, zuzenean monitorizatzeko antenak dituzten bi hargailu, garraio-kutxa eta kargagailu indibidualak dituen karga-kontsola bat, ordenagailu eramangarri bat eta datuak kudeatzeko tableta bat. Gainera, denbora errealeko monitorizazio-softwareak, hodeian biltegiratzeak eta datuak urrutitik igotzeko aplikazioak, Android eta iOS sistemekin bateragarria dena, edozein inguruneteko entrenamenduen eta lehiaketen analisi xehatua emango dute.

Concretamente, el **Sistema de Monitorización Avanzada del Deportista basado en tecnología GPS y acelerometría** permitirá el control en tiempo real del desempeño de los y las deportistas, proporcionando datos precisos sobre velocidad, desplazamientos, carga de trabajo y respuesta fisiológica. Este sistema incluirá 24 unidades emisoras de GPS con acelerómetro, 48 chalecos con frecuencia cardíaca integrada, dos receptores con antenas para la monitorización en directo, una consola de carga con caja de transporte y cargadores individuales, así como un ordenador portátil y una tableta para la gestión de los datos. Además, el software de monitorización en tiempo real, almacenamiento en la nube y la aplicación para subida remota de datos, compatible con sistemas Android e iOS, facilitarán un análisis detallado de los entrenamientos y competiciones en cualquier entorno.

Ekipamendua ezartzeak hobekuntza nabarmena ekarriko du Euskadiko goi-mailako

La implementación de este equipamiento supondrá una mejora sustancial en los

lehiaketarako eskuragarri dauden baliabideetan, eta kirolarien errendimenduaren ebaluazio zehatza eta kontrol zehatza ahalbidetuko ditu. Ebaluazio funtzionalean teknologia aurreratua txertatzeak eta denbora errealeko monitorizazioak entrenamendu-estrategia pertsonalizatuak garatzea erraztuko dute, zentroko teknikarien lanaren efizientzia hobetuko dute eta lan-karga desegokiaren ondoriozko lesioen intzidentzia murriztuko dute.

recursos disponibles para la alta competición en Euskadi, permitiendo una evaluación exhaustiva y un control preciso del rendimiento de los y las deportistas. La incorporación de tecnología avanzada en la evaluación funcional y la monitorización en tiempo real facilitará el desarrollo de estrategias personalizadas de entrenamiento, mejorando la eficiencia del trabajo de los técnicos y técnicas del Centro y reduciendo la incidencia de lesiones derivadas de una carga de trabajo inadecuada.

Azkenik, azpimarratu behar da kontratu hau Europar Batasuneko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planak finantzatuko duela. Beraz, enpresa adjudikaziodunak eta hark azpikontratatutakoek – halakorik badago – Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren betebehar guztiak bete beharko dituzte.

Finalmente, cabe subrayar que este contrato va a estar financiado por el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia de la Unión Europea. Por tanto, la empresa adjudicataria, así como las subcontratadas por ésta –si las hubiere– estarán obligadas a cumplir con todas las obligaciones del Reglamento (UE) 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo de 12 de febrero de 2021 por el que se establece el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia.

2021eko otsailaren 12an, Europako Parlamentuak eta Europar Batasuneko Kontseiluak 2021/241 (EB) Erregelamendua onartu zuten. Erregelamendu horrek Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen du, zeinak indartu egiten baitu Batasunaren eta haren estatu kideen susperraldia lortzeko eta erresilientzia indartzeko ideia, sei zutabetan egituratutako Europa mailako garrantzia duten eremu politikoei buruzko neurriak babestuz.

El 12 de febrero del 2021, el Parlamento Europeo y el Consejo de la Unión Europea adoptaron el Reglamento (UE) 2021/241, el cual establece el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia que refuerza la idea de lograr la recuperación y reforzar la resiliencia de la Unión y de sus Estados miembros mediante el apoyo a medidas que se refieran a ámbitos políticos de importancia europea estructurados en seis pilares.

Helburua koronabirusaren pandemiaren eragin ekonomikoa eta soziala arintze da eta Europako ekonomiak eta gizarteak jasangarriagoak eta erresilienteagoak izatea eta trantsizio ekologiko eta digitalen erronka eta aukeretarako hobeto prestatuta egotea.

Su finalidad es mitigar el impacto económico y social de la pandemia de coronavirus y hacer que las economías y sociedades europeas sean más sostenibles y resilientes y estén mejor preparadas para los retos y las oportunidades de las transiciones ecológica y digital.

Tresna horrek 27 estatu kideen eskura jartzen du laguntza, zuzeneko transferentzien eta maileguen bidez, inbertsio publikoak areagotzeko eta erreformak egiteko, ekonomia eta enplegua suspertzen laguntzeko eta COVID-19aren ondorengo erronka ekonomiko eta sozial nagusiei aurre egiteko.

Dicho instrumento pone a disposición de los 27 Estados miembros apoyo a través de transferencias directas y préstamos para incrementar las inversiones públicas y acometer reformas que contribuyan a la recuperación de la economía y el empleo y se orienten a abordar los principales retos económicos y sociales post COVID-19.

Hala ere, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan funtsak eskuratu ahal izateko, estatu kideek suspertze- eta erresilientzia-plan bat aurkeztu behar zuten. Horregatik aurkeztu zuen Espainiako estatuak "Berreskuratze, Transformazio eta Erresilientzia Plana", 2021eko apirilaren 27koa, Europako Batzordeak 2021eko ekainaren 16an onartua.

No obstante, para poder acceder a los fondos en el marco del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia, los Estados miembros debían presentar un plan de recuperación y resiliencia. De ahí que el estado español presentara el denominado "Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia", de 27 de abril de 2021 y aprobado por la Comisión Europea el 16 de junio de 2021.

Berreskuratze, Transformazio eta Erresilientzia Planak zeharkako lau ardatz ditu. Lau ardatz horiek 10 palanka-politikatan proiektatzen dira. Hamar palankek, era berean, 30 osagai biltzen dituzte, ekonomia berreskuratzea eta modernizatzea bultzatzeko inbertsio-proiektuak artikulatzen dituztenak.

El Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia integra cuatro ejes transversales. Estos cuatro ejes se proyectan en 10 políticas palanca. Las diez palancas, a su vez, recogen 30 componentes que articulan proyectos de inversiones con las que se debe impulsar la recuperación y modernización de la economía.

Horien artean, 26. osagaiak («Kirol-sektorea sustatzeko plana») honako hauek jasotzen ditu: kirol-sektorea digitalizatzera bideratutako erreformak eta inbertsioak; kirol-instalazioetan ingurumen-jasangarritasuneko neurriak optimizatzera eta ezartzera bideratutako inbertsioa; despopulazio-arriskuan dauden eremuetan jarduera fisiko osasungarrirako sarbide hobea ahalbidetuko duten azpiegiturak garatzea; kirolaren eta jarduera fisikoaren bidez ohitura osasungarriak sustatzea, herritarren osasuna hobetuz, eta berdintasuna eta kirolean sartzea sustatuko duten sektore espezifikoak garatzea. Horren barruan, autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek parte hartzen duten hainbat proiektu daude; besteak beste, **C26.I01.P01 proiektua, «Kirol Sektorea Digitalizatzeko Plana».**

Entre ellos, el componente 26 "Plan de fomento del sector del deporte", recoge reformas e inversiones orientadas a la digitalización del sector deporte; la inversión dirigida a optimizar e implementar medidas de sostenibilidad ambiental en las instalaciones deportivas; el desarrollo de infraestructuras que permitan un mejor acceso a la actividad física saludable en zonas en riesgo de despoblación; el fomento de hábitos saludables a través del deporte y la actividad física, mejorando la salud de los ciudadanos y el desarrollo de sectores específicos que promuevan la igualdad y la inclusión en el deporte. Dentro de él se encuentran diversos proyectos de los que participan las comunidades autónomas y ciudades de Ceuta y Melilla; entre ellos, el proyecto **C26.I01.P01 "Plan de Digitalización del Sector Deporte".**

26. osagaiaren barruan («Kirol-sektorea sustatzeko plana»), 01 inbertsioa dago («Kirol-sektorea digitalizatzeko plana»), teknologia berriak txertatuz sektorea digitalki modernizatzera bideratuta dagoena. Inbertsio horrek CID 370 mugarria betetzen laguntzen du, digitalizazioaren hobekuntza nabarmena aurreikusten baitu honako arlo hauetan: errendimendu handiko zentroetan teknologia ezartzea, entrenamenduak optimizatzeko sistema digitalak erabiltzea, kirol-

Dentro del Componente 26 "Plan de fomento del sector del deporte", se encuentra la Inversión 01 "Plan de Digitalización del Sector Deporte", orientada a modernizar digitalmente el sector mediante la incorporación de nuevas tecnologías. Esta inversión contribuye al cumplimiento del hito CID 370, que prevé la mejora significativa de la digitalización en áreas como la implantación de tecnología en centros de alto rendimiento, la utilización de sistemas

errendimenduari lotutako prozesuak digitalizatzea eta abar. Esparru horretan, autonomia-erkidegoek proiektu zehatzak gauzatu behar dituzte teknifikazio-zentroetan eta errendimendu handiko zentro espezializatuetan, hala nola **Basque Team Goi Mailako Kirolaren Euskal Zentroan (BAT eraikina).**

Kirolaren Batzorde Sektorialak Kirol Kontseilu Gorenaren Lehendakaritzaren 2024ko otsailaren 15eko Ebazpenaren bidez onartutako kredituen lurralde-banaketaren arabera, **92.132,36€** transferitu zaizkio Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari, eta horietako **36.733,72** euro kontratu honetara bideratuko da.

2. Deskribapena eta kalitate-egiaztapena

Basque Team Goi Mailako Kirolaren Euskal Zentroko Zuzendaritzak eta/edo hark eskuordetutako langileek behar beste egiaztapen egingo dituzte produktuen kalitatea eskatutakoa dela ziurtatzeko.

3. Hornidura

Ekipamendu hori Basque Team Goi Mailako Kirolaren Euskal Zentroan hornituko da, eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak zehazten duen espazioan instalatuko da.

Ez da onartuko zehaztutako gutxienekoak betetzen ez dituen eskaintzarik. Ezinbesteko baldintza izango da eskainitako produktu guztiak erabilera profesionalerako izatea, eta ez da onartuko erabilera erdiprofesionalerako edo etxerako produktuak barne hartzen dituen eskaintzarik. Eskainitako material guztiak egokia izan behar du goi-mailako kirola egiteko.

digitales para optimizar entrenamientos, y la digitalización de procesos vinculados al rendimiento Deportivo, etc. En este marco, las comunidades autónomas deben ejecutar proyectos concretos en Centros de Tecnificación y Centros Especializados de Alto Rendimiento, como es el caso del **Centro Vasco del Deporte de Alto Nivel Basque Team (edificio BAT).**

En virtud de la distribución territorial de créditos acordada en la Comisión Sectorial del Deporte mediante Resolución de 15 de febrero de 2024, de la Presidencia del Consejo Superior de Deportes, a la Dirección de Actividad Física y Deporte del Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco se le han transferido **92.132,36 €** de los los cuales **36.733,72€** serán destinados íntegramente al presente contrato.

2. Descripción y comprobación de calidad

La Dirección del Centro Vasco del Deporte de Alto Nivel Basque Team, y/o el personal en quien se delegue, procederán a realizar cuantas comprobaciones se estimen necesarias para asegurarse que la calidad de los productos es la solicitada.

3. Suministro

Dicho equipamiento se suministrará en el Centro Vasco del deporte de Alto Nivel Basque Team procediéndose a su instalación en el espacio que se determine por la Dirección de Actividad Física y Deporte.

No se aceptará ninguna oferta que no cumpla con los mínimos especificados. Será condición imprescindible que todos los productos ofertados sean para uso profesional, no se aceptarán ofertas que incluyan productos para uso semiprofesional o doméstico. Todo el material ofertado debe ser adecuado para la práctica del deporte de alto nivel.

Kontratua sinatu eta hurrengo 30 egun naturalen barruan (hilabete 1) entregatu beharko da materiala eta ekipamendua. Hala ere, epe hori hobetu egin daiteke enpresa lizitatzaileek egiten duten eskaintzan.

Bermeak irauten duen bitartean egin beharreko mantentze-lanak ere sartuko dira horniduran, baita eguneroko erabilera zuzenaren ondorioz edo erabilera-orduen kopuru jakin baten ondoren behar bezala funtzionatzeko aldatu, konpondu edo birjarri daitezkeen osagaiak, elementuak eta/edo kontsumigarriak birjartzea ere.

4. Garraioa, instalazioa eta martxan jartzea

Eskatutako ekipamendu guztia garraiatu, instalatu eta martxan jartzetik eratorritako kostuak kontratistaren kontura izango dira, eta eskainitako prezioan sartuko dira.

5. Materiala entregatzea. Albaranak.

Materiala Basque Team Goi Mailako Kirolaren Euskal Zentroan entregatuko da (Makalen etorbidea S/N 64, BAT eraikina, Makaletako etorbidea). 48992 Getxo (Bizkaia). Entrega ikastetxearekin hitzartuko da aldez aurretik.

Ekipamendua helmugako lekura eraman aurretik galdu, matxuratu edo kaltetzen bada, kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Entrega egindakotzat joko da produktuak benetan jaso eta kirol-zentroan martxan jarri direnean, kontratuaren baldintzen arabera eta erabiltzeko baldintza egokietan.

Kontratistak entrega egin beharko du, albaranaren edo behar bezala betetako entrega-oharraren bidez dokumentatuta. Bertan, entrega-data, kopurua eta emandako ekipamendu-eredua adieraziko dira.

El material y equipamiento será entregado dentro de los 30 días (1 meses) naturales siguientes a la firma del contrato. No obstante, este plazo puede ser mejorado en la oferta que realicen las empresas licitadoras.

El suministro incluirá el mantenimiento durante la vigencia de la garantía, incluyendo la reposición de componentes, elementos y/o consumibles que como consecuencia del correcto uso diario o bien tras un determinado número de horas de uso, fuesen susceptibles de cambio, reparación o reposición para mantener un correcto funcionamiento.

4. Transporte, instalación y puesta en funcionamiento

Los costes derivados del transporte, instalación y puesta en funcionamiento de todo el equipamiento requerido serán por cuenta del contratista, quedando incluidos en el precio ofertado.

5. Entrega del material. Albaranes.

La entrega del material se realizará Centro Vasco del Deporte de Alto Nivel Basque Team, (Avenida de los chopos S/N 64 Edificio BAT, Makaletako Etorb. 48992 Getxo, Bizkaia). La entrega será previamente concertada con el centro.

Por causa de pérdidas, averías o perjuicios ocasionados en el equipamiento antes de su entrega al lugar de destino, el contratista no tendrá derecho a indemnización alguna. Se entenderá realizada la entrega cuando los productos hayan sido efectivamente recibidos y puestos en marcha en el centro deportivo, de acuerdo con las condiciones del contrato y en condiciones óptimas para su utilización.

El contratista deberá realizar la entrega, documentándose la misma mediante albarán o nota de entrega debidamente cumplimentada, en la que se hará constar la fecha de entrega, cantidad y modelo de equipamiento

Dokumentu hori ekipamendua hartzeaz arduratzen diren langileek osatu beharko dute.

Baldintza-agiri honetan zehaztu ez den guztirako, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 300. eta 304. artikuluetan ezarritakoa bete beharko du esleipendunak.

6. Ekipamendua kentzea

Enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du kirol-zentro horretako zuzendaritzak zehazten duen ekipamendua inolako kosturik gabe kentzeko.

Erretiratze hori kontratuaren prestazioaren zatitzat hartuko da, eta administrazioak ez du inolako zenbateko gehigarririk ordainduko.

7. Bermea eta laguntza teknikoa

Elementu guztien gutxieneko berme-aldia urtebetekoa izango da. Hala ere, epe hori hobetu egin daiteke enpresa lizitatzaileek egiten duten eskaintzan.

Baldintza-agiri honetan zehaztu ez den guztirako, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 305. artikuluan ezarritakoa bete beharko du esleipendunak.

8. Esleipendunak ordaindu beharreko gastuak

Eskainitako prezioan sartuko dira lekualdatzeek, eskulanak, birjarri beharreko piezek, formularioek eta abarrek eragindako gastu material eta orokor guztiak, baita mozkin industrialak, tasak, arielak edo edozein motatako kargak ere, baldin eta kontratazio honetan oro har edo bereziki aplikatzekoak badira. Kontratua gauzatzeak arriskua eta mentura ekarriko dizkio esleipendunari.

entregado. Este documento deberá ser conformado por el personal responsable encargado de recepcionar el equipamiento.

Para lo no especificado en este pliego, el adjudicatario deberá atenerse a lo establecido en el artículo 300 y en el artículo 304 de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre de Contratos del Sector Público.

6. Retirada de equipamiento

La empresa adjudicataria se comprometerá a la retirada del equipamiento que determine la Dirección de dicho centro deportivo sin coste alguno.

Dicha retirada se considerará como parte de la prestación del contrato y no supondrá el pago de ninguna cantidad adicional por parte de la Administración.

7. Garantía y asistencia técnica

El periodo mínimo de garantía para todos los elementos será mínimo de 1 año. No obstante, este plazo puede ser mejorado en la oferta que realicen las empresas licitadoras.

Para lo no especificado en este pliego, el adjudicatario deberá atenerse a lo establecido en el artículo 305 de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre de Contratos del Sector Público.

8. Gastos a cargo del adjudicatario

En el precio ofertado se considerarán incluidos todos los gastos que se pudiesen originar como gastos materiales y generales por traslados, mano de obra, piezas a reponer, formularios, etc., incluyendo beneficio industrial, tasas, arbitrios o gravámenes de cualquier tipo, que sean de general o especial aplicación a la presente contratación. La ejecución del contrato será a riesgo y ventura para el adjudicatario.

9. Deskribapena eta zehaztapen teknikoak

Ezaugarriak:

9.2. KIROLARIAREN MONITORIZAZIO AURRERATUKO SISTEMA, GPS ETA AZELERAEROMETRIA BIDEZKOA

Sistema horrek zehaztasun handiko datuak eman beharko ditu kirolariaren desplazamenduari, lan-kargari eta erantzun fisiologikoari buruz, denbora errealean, biltegiratzeko eta aztertzeko gaitasun aurreratuarekin.

1. **GPSa igortzen duten unitateak eta azelerometroa (24 unitate)**
   - GNSS teknologia, **GPS, GLONASS, Galileo eta BeiDou** konstelazioetarako euskarriarekin.
   - Gutxienez **10 Hz-eko** laginketa-maiztasuna ± 20 cm-ko kokapen-doitasunarekin ingurune irekietan.
   - Azelerometro triaxiala, **± 16 g**-ko neurketa-tartearekin eta **100 Hz-ko** gutxieneko bereizmenarekin.
   - Gutxienez 2 orduko erabilera jarraituko autonomia litio-bateria kargagarriarekin.
   - **50 g-tik** beherako pisua eta karkasa, urarekiko eta hautsarekiko erresistentziaren ziurtagiria duena.

2. **Bihotz-maiztasuneko txaleko integratuak (48 unitate)**
   - Elektrokardiografia-sentsore (EKG) integratuak, 250 Hz-ko laginketa-ahalmenarekin.
   - Material transpiragarria eta bakterio-kontrakoa, doikuntza ergonomikoarekin.
   - Interferentzia elektromagnetikorik gabeko

9. Descripción y especificaciones técnicas

Características:

9.2. SISTEMA DE MONITORIZACIÓN AVANZADA DEL DEPORTISTA MEDIANTE GPS Y ACELEROMETRÍA

Este sistema deberá proporcionar datos de alta precisión sobre el desplazamiento, la carga de trabajo y la respuesta fisiológica del deportista en tiempo real, con capacidad de almacenamiento y análisis avanzado.

1. **Unidades emisoras GPS y Acelerómetro (24 unidades)**
   - Tecnología GNSS con soporte para constelaciones **GPS, GLONASS, Galileo y BeiDou**.
   - Frecuencia de muestreo de **mínimo 10 Hz** con precisión de localización **±20 cm en entornos abiertos**.
   - Acelerómetro triaxial con rango de medición de **±16 g** y resolución mínima de **100 Hz**.
   - Autonomía mínima de 2 **horas de uso continuo** con batería de litio recargable.
   - Peso inferior a **50 g** y carcasa con certificación de resistencia al agua y polvo.

2. **Chalecos con frecuencia cardíaca integrada (48 unidades)**
   - Sensores de electrocardiografía (ECG) integrados con capacidad de muestreo de **250 Hz**.
   - Material transpirable y antibacteriano con ajuste ergonómico.

GPS unitateekin bateragarria den diseinua.

3. **Zuzeneko monitorizaziorako hargailuak (antenak) eta tripodeak (2 unitate bakoitza)**
   - Gutxienez 150 metroko estaldura-tartea, 100 ms-tik beherako transmisio-latentziarekin.
   - Interferentzia txikiko irrati-maiztasun bidezko transmisio-teknologia.
   - Altueran doitu daitezkeen tripodeak, buru birakariarekin eta ainguraketa-sistema indartuarekin.

4. **Kontsola kargatzaileak eta Garraio-kutxa (unitate 1)**
   - Aldi bereko karga-sistema, 12 gailutarako edukiera duena.
   - Karga azkarreko konexioa USB-C ataken bidez.
   - Atal barrubigunak eta segurtasun-sarraila dituen kutxa indartua.

5. **Banakako Kargagailuak (24 unitate)**
   - Karga azkarreko ahalmena, 5V/3A sarrerarekin.
   - Gainkargaren eta zirkuitulaburren aurkako babesa.

6. **Ordenagailu eramangarria (unitate 1) eta tableta (unitate 1)**
   - Ordenagailu eramangarri bat, gutxienez 8 GB RAM eta 256 GB-ko SSD prozesadorearekin.
   - Tableta, erretina-pantailarekin eta WiFi/Bluetooth konektagarritasuna

   - Diseño compatible con unidades GPS sin interferencias electromagnéticas.

3. **Receptores (Antenas) para monitorización en directo y Trípodes (2 unidades cada uno)**
   - Rango de cobertura mínimo de **150 metros** con latencia de transmisión **inferior a 100 ms**.
   - Tecnología de transmisión por radiofrecuencia con baja interferencia.
   - Trípodes ajustables en altura con cabezal giratorio y sistema de anclaje reforzado.

4. **Consola cargadores y Caja de transporte (1 unidad)**
   - Sistema de carga simultánea con capacidad para 12 **dispositivos**.
   - Conexión de carga rápida mediante puertos USB-C.
   - Caja reforzada con compartimentos acolchados y cerradura de seguridad.

5. **Cargadores individuales (24 unidades)**
   - Capacidad de carga rápida con entrada de **5V/3A**.
   - Protección contra sobrecarga y cortocircuitos.

6. **Ordenador portátil (1 unidad) y una tablet (1 unidad)**
   - **Un ordenador portátil** con procesador mínimo **de 8 GB de RAM** y **SSD de 256 GB**.
   - Tablet con pantalla retina y conectividad WiFi/Bluetooth.

7. **Bihotz-maiztasunaren monitorizazioa**
   - ± 2 bpm-ko doitasuna, minutuko 40-220 taupadako neurketa-tarte batean.
   - Entrenamendu-softwarearekin sinkronizatzeko gaitasuna.

8. **Zuzeneko monitorizazioa app-en bidez**
   - Segundo bakoitzean datuak eguneratuta aplikatzea.
   - Errendimendu-metrikak bistaratzea grafikoetan eta bero-mapetan.

9. **Unitate igorleetarako, Kontsolarako eta Clouderako software**
   - Hodeian biltegiratzea eta erabiltzaile anitzeko sarbidea duen plataforma.
   - Lan-karga aztertzeko eta lesioak prebenitzeko algoritmo aurreratuak.

10. **Datuak urrunetik (Android eta iOS) 30 kirolariraino igotzeko aplikazioa**
    - Datu-base zentralarekin automatikoki sinkronizatzeko gaitasuna.
    - PDF eta CSV formatuko txostenak esportatzea

B) Ekipamenduaren erabilerari buruzko prestakuntza

Enpresa lizitatzaileek prestakuntza teknikoa eman beharko diete Basque Team Goi Mailako Kirolaren Euskal Zentroko (BAT) langileei, zentroko profil profesionalek (entrenatzaileak, errendimendu-teknikariak, medikuak, analistak, etab.) hornitutako ekipamendua behar bezala erabil dezaten, eta ohiko lan-prozeduretan txerta dezaten.

7. **Monitorización de frecuencia cardíaca**
   - Precisión de **±2 bpm** en un rango de medición de **40-220 latidos por minuto**.
   - Capacidad de sincronización con software de entrenamiento.

8. **Monitorización en directo a través de apps**
   - Aplicación con actualización de datos cada **1 segundo**.
   - Visualización de métricas de rendimiento en gráficos y mapas de calor.

9. **Software para unidades emisoras, Consola y Cloud**
   - Plataforma con almacenamiento en la nube y acceso multiusuario.
   - Algoritmos avanzados de análisis de carga de trabajo y prevención de lesiones.

10. **App para subida remota de datos (Android e iOS) hasta 30 atletas**
- Capacidad de sincronización automática con la base de datos central.
- Exportación de informes en PDF y CSV

B) Formación sobre el uso del equipamiento

Las empresas licitadoras deberán proporcionar formación técnica dirigida al personal del Centro Vasco del Deporte de Alto Nivel Basque Team (BAT), que permita el uso correcto del equipamiento suministrado por parte de los distintos perfiles profesionales del centro (entrenadores/as, técnicos/as de rendimiento, personal médico, personal analista, etc.), así como su integración operativa en los procedimientos habituales de trabajo.

Prestakuntzak alderdi teorikoak eta praktikoak hartu beharko ditu kontuan, eta, gutxienez, honako hauek jaso beharko ditu: sistemaren eta haren osagaien aurkezpen orokorra, instalazioa eta abiaraztea, funtzionamendu operatiboa, datuen bilketa eta kudeaketa, emaitzen analisia eta interpretazioa eta gorabeheren oinarrizko ebazpena.

Hornitutako ekipamenduaren erabileran esperientzia frogagarria duten enpresa lizitatzaileko teknikari kualifikatuek eman beharko dute prestakuntza.

La formación deberá contemplar tanto aspectos teóricos como prácticos, incluyendo como mínimo: la presentación general del sistema y sus componentes, la instalación y puesta en marcha, el funcionamiento operativo, la recogida y gestión de datos, el análisis e interpretación de resultados y la resolución básica de incidencias.

La formación deberá ser impartida por personal técnico cualificado de la empresa licitadora, con experiencia demostrable en el manejo del equipamiento suministrado.

D) Euskarri teknikoa eta saldu osteko mantentze-lanak

Enpresa lizitatzaileek laguntza teknikoa eta salmenta osteko mantentze-zerbitzua eskaini beharko dute hornitutako ekipamenduaren bermealdian zehar. Bermealdi horrek gutxienez urtebeteko iraupena izango du, edo, bestela, lizitatzaileak bere eskaintzan zehaztutako epea hartuko da aintzat. Zerbitzu horren bidez, ekipamenduaren funtzionamendu egokia bermatu nahi da, gorabehera teknikoak konpontzea eta sistemak eguneratzea ahalbidetuz, bai hardwareari dagokionez, bai softwareari dagokionez.

Harremanetarako erabilgarri dauden kanalak (telefonoa, posta elektronikoa, urruneko asistentzia, etab.), arreta-ordutegia eta erantzuteko epe espezifikoak zehaztu beharko dira, eta, behar izanez gero, bertaratzea ere jaso beharko da, kostu gehigarririk gabe.

Era berean, honako hauek sartu beharko dira: programatutako mantentze prebentiboa, aldizkako azterketa teknikoak eta mugarik gabe sartzea software-eguneratzeetara, firmware-hobekuntzak edo sistemaren bertsio berriak. Matxura larriren bat gertatuz gero, zerbitzua eten ez dadin, aldi baterako ordezkapen-ekipamenduak edo zerbitzuaren jarraitutasuna bermatuko duten irtenbide tekniko alternatiboak eskuragarri egongo direla bermatuko da.

C) Soporte técnico y mantenimiento postventa

Las empresas licitadoras deberán ofrecer soporte técnico y mantenimiento postventa durante todo el periodo de garantía del equipamiento suministrado, que será, como mínimo, de un año o, en todo caso, el fijado por la propia licitadora en su propuesta, con el fin de asegurar el correcto funcionamiento, la resolución de incidencias técnicas y la actualización de los sistemas, tanto a nivel de hardware como de software.

Deberán especificarse los canales de contacto disponibles (teléfono, correo electrónico, asistencia remota, etc.), el horario de atención, y los plazos de respuesta específicos; en caso necesario, asistencia presencial sin costes añadidos.

Asimismo, se deberá incluir mantenimiento preventivo programado, revisiones técnicas periódicas y acceso sin restricciones a actualizaciones de software, mejoras de firmware o nuevas versiones del sistema. En caso de avería grave, se garantizará la disponibilidad de equipos de sustitución temporal o soluciones técnicas alternativas que aseguren la continuidad del servicio para evitar la interrupción del servicio.

Zerbitzu teknikoa kontratuaren xede diren ekipamenduen esperientzia eta kualifikazio nahikoa duten enpresako langileek edo baimendutako banatzaileek eman beharko dute.

El servicio técnico deberá ser prestado por personal propio de la empresa o distribuidores autorizados, con experiencia y cualificación suficiente en los equipos objeto del contrato.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan

GORKA ITURRIAGA MADARIAGA - 30665932D

Firmado digitalmente por GORKA ITURRIAGA MADARIAGA - 30665932D
Fecha: 2025.07.15 10:22:49 +02'00'

Gorka Iturriaga Madariaga
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaria